



IZENBURUA: Psikopatologia nerabezaroan: gizarte- eta hezkuntza esku-hartzerako giltzak

DESKRIBAPENA:

Ikastaro teoriko-praktiko honek nerabeekin lan egiten **duten profesionalei psikopatologiaren inguruko oinarrizko ezagutzei hurbiltzeko aukera eskaintzen** die. Gainera, detekzioa eta/edo arreta espezifikoak ematen duten bestelako zerbitzuetara deribatzen diren elementuak eskaintzen ditu, baita esku-hartze **psikosozialerako eta akonpainamendurako giltzak ere**.

Nerabezaroa hainbat testu, argitalpen eta ikuspuntutatik aztertu izan da: soziologikoa, historikoa, antropologikoa, psikologiakoa, psikoanalitikoa eta psikiatrikoa. Eremu psikosozialeko profesionalentzat eta eredu komunitario batetik abiatuta, beharrezkoa da populazio honen psikopatologiaren inguruko oinarrizko ezagutzak izatea.

HARTZAILEAK: Eremu psikosozialeko eta hezkuntzako profesionalak

HELBURUAK:

- Nerabearen psikean garapen ebolutiboak duen inpaktuaren oinarrizko funts teorikoak ezagutzea.
- Baliabide espezifikoetara deribatzen diren gaitzak eskaintzea.
- Gizarte- eta hezkuntza esku-hartzea eta akonpainamendua errazten dituzten giltzak ezagutzea.
- Benetako egoeren azterketa eta egiaztatzea egiteko espazioa.

EDUKIAK:

- Nerabezaroa: garapen ebolutiboaren ezaugarri espezifikoak
- Nortasunaren eraketa
- Nerabezaroan ematen diren patologia ohikoenak, nola antzeman?
- Beste baliabide batzuetara deribazioa
- Nerabeak eta mugak
- Gizarte- eta hezkuntza esku-hartzerako giltzak
- Kasu praktikoak.

METODOLOGIA: Teorikoa, praktikoa eta hausnarketa bidezkoa

TIPOLOGIA: Presentziala

TOKI KOPURUA: 15 pertsona



SAIO KOPURUA ETA IRAUPENA: 4 orduko 2 saio

DATAK ETA ORDUTEGIA: Ostirala, 2019ko martxoak 22 eta 29, 16.00etatik 20.00etara

TOKIA: Agintzariko egoitza, Madariaga etorb. 1, 4. Solairua, Bilbo

HIZKUNTZA: Gaztelania

PREZIOA: 100 €

FORMATZAILEA:

Arantza Llona Rivas



Psikologoa eta haur eta nerabeen psikoterapeuta, *Theraplayn* eta *Marschak Interaction Method Trainingen* espezializatua; Psikoterapian aditua, EFPAko Europyk akreditatua; eta SEPYPNA (Sociedad Española de Psiquiatría y Psicoterapia) elkarteko kidea.

1997tik 2007ra eremu pribatuan eta ALTXAn (Haur eta Nerabeen Osasunaren Sustapenerako Elkartea) jardun du haur eta nerabe psikoterapeuta moduan. Egun, Agintzari GEKen egiten du lana haurren babeserako zerbitzu ezberdinetan. Horrez gain, Familia Harrerako, eta Nazio eta Nazioarteko Adopzio programetan, Bizkaiko Foru Aldundiko Bizkaian Adopzioa Sustatzeko Programan (PAAB) dihardu. Bestalde, Agintzari GEKen Arlobi-Adoptia zerbitzuarekin kolaboratzen du eta gizarte esku-hartzeko profesionalei formakuntza eskaintzen die.